


Gaitasunetan oinarritutako prestakuntza espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Konpromisoa: erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua / Prestakuntza Espezializatua. Gurutzetako Unibertsitate . Barakaldo.

Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua

Kirurgia pediatrikoaren espezialitatearen oinarria da mediku kirurgikoaren jakintza eta eginkizunak aplikatzea, sorkuntzatik nerabezaroaren amaierara bitarteko giza bizitzaren aldian. Gure herrialdean, sasoi hori, funtsean, jaioberri-alditik 14 eta 16 urte bitarteko aldia da. Horrenbeste, Kirurgia Pediatrikoko prestakuntza-programak barne hartzen ditu nahitaez, espezialitaterako oinarrizkotzat jotzen diren Kirurgia eta Pediatriako ezagutza guztiak.

Jarraian, honako hauek zehaztuko dira:


- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Nor gara

Zerbitziburua

Jose Luis Blanco Bruned dk.



TUTOREA:

Estibaliz Solórzano Rodríguez dk.



TUTOREA:

Arturo Galbarriatu Gutiérrez dk.

Zerbitzua 1971n sortu zen. Kirurgia Pediatrikoko Espezialitatearen Batzorde Nazionalak diseinatu duen programari jarraituta, prestakuntza osoa eskaintzen du. 1972an lortu zuen espezialistak trebatzeko akreditazioa. Gaur egun, prestakuntza-plaza bat eskaintzen du urte bakoitzean.



2009an, Osasun Ministerioak irakaskuntza-ikuskaritza bat egin zuen gure Zerbitzuan, eta horrek irakaskuntza-gaitasuna berretsi zuen. Gomendio horiek gida gisa balio izan dira irakaskuntza-programa hau garatzeko. Harrezkero, 6 Egoiliarrek osatu dute euren prestakuntza gure zerbitzuan, eta horiek guztiak Zerbitzuko plantillan sartu dira pixkanaka-pixkanaka, eta horrek aukera eman du zerbitzua belaunaldiz belaunaldi berritzeko.

Egun arte, honako hauek izan dira zerbitzuko zuzendariak:

Ulises Ruiz Ferrándiz dk. , Gonzalo González Landa dk., Carmen Torres Piedra dk. eta Francisco José Oliver Llinares dk. . Gaur egun, Jose Luis Blanco Bruned doktorea da Zerbitzuko burua.

Hauek izan dira azken urteotan Zerbitzuaren bilakaeraren alderdi garrantzitsuenak:

- ✓ Prebalentzia eta konplexutasun bereziko patologien diagnostikorako, tratamendurako eta jarraipenerako unitate espezifikoak ezartzea, hala nola, kolon eta ondesteko patologia, aurpegiko arrailak, pareta torazikoko malformazioak eta tumore-patologia.
- ✓ Taldea osatzen duten medikuei prestakuntza ematea hainbat arlotan aditu izateko, patologia konplexu horien tratamenduan asistentziaren kalitatea hobetzeko.
- ✓ Pediatrian erabilitako teknika kirurgiko modernoak aplikatzea; hala nola laparoskopioa patologia kopuru gero eta handiagoan (laparoskopioa patologia digestibo eta urologikoan, torakoskopioa), ekografia intraoperatorioa erabiltzea, endourologia.
- ✓ Egoiliarren prestakuntza berrikustea eta hobetzea, errotazioen egutegia optimizatzea barne, etengabeko ebaluazioa eta haiekin etengabeko harremana izatea azpimarratuz; izan ere, prestatzen ari diren medikuen kopurua txikia denez (inoiz ez bi baino gehiago), horiek gehiago eta hobeto ezagutzea ahalbidetzen digu. Era berean, eta Ospitaleko Irakaskuntza Batzordearen argibideei jarraituz, kompetentzietan oinarritutako espezialitateko prestakuntza-plan bat garatzen ari da.



Hauxe da lantaldea:

Zerbitzuburu bat

9 mediku adjuntu

2 BAME prestakuntzan

Erabat estankoak ez diren 3 ataletan egituratuta dago plantilla: A Kirurgia Orokorra (Patologia Belofaringean, Arnasbidean, Plastikan eta Tumorean Aditua), B Kirurgia Orokorra (Kolon-ondesteetako Kirurgian, Arnasbidean eta Toraxeko Paretako Malformazioetan aditua) eta Kirurgia Urologikoa.

Zerbitzuak honako asistentzia-atal edo -unitate hauek ditu:

Ospitalizazio-eremuko unitateak:

- Jaioberrien unitatea (6.E).
- Bularreko haurren ospitalizazio-unitatea, 2 urte bete arte (6D).
- Eskolaurreko ospitalizazioko unitatea (2 urtetik gorako haurrak) (5.D).
- Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitateak (PZIU).
- Pediatriako Onkologiako Unitatea (6.E)

KANPO-KONTSULTA OROKORRAK:

- Egunero hiru kontsulta-gela ditugu ospitaleko Pediatria Arloko Kontsulten eremuan, 2. solairuan. Horietan Kirurgia Pediatrikoari dagokion patologia orokorra eta Urologia Pediatrikoa artatzen dira, eta eremu horretan kirurgialari pediatriko guztiek prestakuntza berezia dute.
- Era berean, Zerbitzuak hiru kontsulta-gela ditu miaketarako, 6. E-an (pediatriako kirurgia-eremuan), patologia espezializatuagoak diagnostikatzeko, tratatzeko eta diziplina anitzeko jarraipena egiteko:



- O **Unitate Funtzional Belofaringeo**a: aurpegiko arraildurak (ezpain-palatinaren pitzadurak) eta funtzio belofaringeoaren alterazioak dituzten pazienteak artatzea du ardatz.
- O **Unitate kolorrektala eta ostomizatu pediatrikoak**: kolon-ondesteetako sortzetiko patologia (ondesteko uzki-malformazioak) arreta pertsonalizatu eta espezializatuari erantzuten dio. Halaber, bere gain hartzen ditu eremuko berariazko proba funtzionalak eta ostomizatutako pazienteen erizaintza-erabilera.
- O **Urologia Pediatrikoko Unitate Funtzionala**: patologia funtzional urologikoa duten pazienteen balorazio, jarraipen eta tratamendu integralera bideratua, arreta berezia eskainiz Urodinamika Pediatrikoa egiteari.
- O **Horma torazikoko malformazioen unitatea**: toraxeko deformazioen (pectus carinatum eta excavatum) balorazioan eta tratamenduan ardatzua.

LARRIALDIAK:

Pediatriko larrialdietarako berariazko eremuan kokatzen dira. Pediatriko Kirurgia Pediatrikoko guardiako ziruauak Pediatria Zerbitzuko Larrialdiko deiak artatzen ditu, bai eta pediatriko solairuan eta jaioberrien eta pediatriko zainketa intentsiboetan ingresatutako pazienteen deiak ere; gure espezialitatekoak izan zein baloratu beharreko beste espezialitatekoak izan.

Guardiak egiten dira, 17 ordukoak, egunero, eta 24 ordukoak, asteburuetan eta jaiegunetan; beraz, ospitalean beti dago trebatutako espezialista bat. Egoiliar bat ere egon daiteke adjuntua laguntzen.

PEDIATRIAKO BLOKE KIRURGIKOA

Unitatearen funtsezko eremua da. Ospitaleko E aldean dago, 5. solairuan. Egunero aktibo dauden 3 ebakuntza-gela ditu, eta beren jardura asistentziala banatzen dute Kirurgia Pediatrikoaren eta beste zortzi espezialitatearen artean. Horiek ere patologia pediatrikoa artatzen dute, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin (Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Haurrentzako ortopedia, Neurokirurgia, Maxilofaziala, Plastikoa, Dermatologia, Ortodontzia). Edonola ere, gure zerbitzuari dagokio jardura gehiena, batez beste 35 saio kirurgiko hilean. Espazio fisiko berean, Anestesia Ondoko Suspertze Unitate Pediatriko bat eta Pazienteak Hartzeko gune bat daude (anestesia aurreko eremua, erabat berritua 2019an), senideentzako Itxarongelarekin batera.



Laburbilduz, jarduera kirurgikoa honela bana daiteke:

- Goizez, hiru ebakuntza-gela erabilgarri egunero; horietako bat pediatriako larrialdiei erantzuteko da.
- Arratsaldez, hiru ebakuntza-gela erabilgarri, astero.
- Larrialdietako Zerbitzuko ebakuntza-gela erabilgarri, 24 orduz.

Urteko jarduerak (Pediatria-kirurgia orokorra eta urologia pediatrikoa) berrikusi eta komunikazioaz arduratzen den taldeari bidaltzen zaio, eta hark ospitaleko web orrian argitaratzen du.

Hemen kontsulta daitezke gure zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzu-zorroatik:

[KIRURGIA PEDIATRIKOKO ZERBITZU ZORROA](#)



Non gaude

Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko 5. solairuan dago: Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903. Barakaldo, Bizkaia

[Ikus ospitalea Google Maps-en](#)

Administrazio-idazkariak honako hau da:

- Rosa M^a Barquín Lozano andrea

Telefonia: 946 006 342

Helbide elektronikoa:

Secretaria.CpediatricaCruces.@Osakidetza.eus





Prestakuntza-eskaintza

Prozedura eta asistentzia-jarduera garrantzitsuenak

- Pediatriako kirurgia orokorra: jaioberrientzako kirurgia, kirurgia ginekologikoa, kirurgia digestiboa, kirurgia onkologikoa, toraxeko kirurgia, oinarrizko kirurgia plastikoa, kirurgia minimoki inbaditzailea, bereizmen handiko kirurgia eta pediatriako urologia. Hori guztia, Kirurgia Pediatrikoko Espezialitatearen Batzorde Nazionalak mediku espezialistak zentro akreditatuetan trebatzeko ezarri duenarekin bat etorrira.
- Endoskopiak; endoskopia zurrnak eta arnas-endoskopiak; fibroendoskopia digestiboa, urologikoa eta nasofaringekoa.
- Proba funtzionalak: phmetria, uzki-ondoesteko manometria, biopsiak, uzki-ondoesteko *biofeedback*, urodinamia eta gernu-*biofeedback*, ahosabai bigunaren eta faringearen funtzioen gaineko probak eta toraxeko paretaren itxura-anormaltasunen kontrol manometrikoa.
- Etengabeko arreta emateko zerbitzua
- Kontsultartekoak ospitalearen barnean eta ospitaletik kanpo. Kanpo-kontsultak eta GKEek Osakidetzaren bidez bidalitako gaixoei arreta ematea.

Dedikazio berezia

- Koloneko eta ondoesteko patologia. Sortzetiko malformazioak eta patologia hartuak.
 - Kolon-ondesteko eta ostomizatuen zentroa sortu zen, haurren kolon-ondesteko patologia diziplina anitzeko modu integralean tratatzeko. Taldea osatzen dute kirurgialari pediatrikoek (kolon-ondesteko patologiarri dedikazio berezia eskaintzen diote), ostomizatutako haurren maneian esperientzia handia duten erizainek eta psikologo kliniko batek.
- Ezpain-ahosabaiko arraila eta eta funtzio belofaringearen alterazioak dutenen patologia.
 - Diziplina anitzeko tratamendu globala. Lantaldea osatzen dute patologia horri dedikazio berezia eskaintzen dioten kirurgialari pediatrikoek eta logopeda batek, aurpegi-masailtako kirurgiaren eta ortodontziaren lankidetzarekin batera.
 - ICHOM programa. Ezpain-ahosabaiko arraila Balioan Oinarritutako Medikuntza



- Alterazio funtzional urologikoak, Gernu Inkontinentziako unitate espezifiko batekin.
 - Beheko gernu-traktuaren arazo funtzionalen maneia
 - oMaskuri-disfuntzio neurogenoaren maneia, mielodisplasiaren aurrean.
- Toraxeko paretako anomaliak.
 - Toraxeko paretako malformazioak artatzeko tratamendu minimoki inbaditzaileak eta tratamendu kontserbadorea
 - oTratamendu kirurgikoa.

Gehiago jakin nahi izanez gero, hemen dago eskuragarri gure zerbitzu-zerrenda:

[Ospitalea > Zerbitzu zorroa > zerbitzu kirurgikoak](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarriko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Prestakuntza aldetik interesgarriak diren ikastaroetan (aire-bideari buruzko ikastaroak, bronkoskopiari buruzkoak, digestio-fibroendoskopiari buruzkoak, etab.) eta pediatriako kirurgialariaren prestakuntzarako interes berezia duten errotazioetan parte hartzea sustatzen du zerbitzuak. Medikuek prestakuntza jasotzen duten bost urteetan etengabe trebatzen dira saio laparoskopikoetan, eta ikastaro teorikoak eta praktikokoak egiten dituzte ospitale birtualean; horrez gain, asistentzia-lana ere egiten dute. Era berean, Ospitaleko beste espezialitate kirurgiko batzuetako egoiliar guztiek bezala, Mikrokirurgiako trebetasun kirurgikoei buruzko ikastaroa jasoko dute R-3 eta R-4 gisa prestatzen ari diren bitartean. Ikastaro horretan, animalia-eredu artifizialekin eta bizirik gabekoekin trebatzen dira.

Saio klinikoaren programa zehatza dago, bai egoiliarrek bai mediku adjuntuek ematen dutena. Azkenaldian, Morbi Hilkortasun saioak, Programazio Kirurgikoko Saioak, kasu espezifikoak eta guardiako pasea sartu dira. Pediatriako saioen programarekin lotura estuagoa izatea eta harekin lankidetzan aritzea bilatzen ari gara. Berriazko Patologiaren Diziplina Anitzeko Saiotara ere joaten gara: Nefrourologikoa, Tumoreak, Anomalia Baskularrak, bertan. Zirujau pediatrikoa funtsezkoa baita, bai diagnostikoan, bai ebakuntza kirurgikoa egiteko unera erabakitzean, hala dagokionean.

Haxe da **saio klinikoak** antolatzeko maiztasuna:



- **-Eguneroko maiztasuna:** Larrialdietako saioa. Bertan, mediku egoiliarrek guardiako jarduera diagnostiko eta terapeutikoaren xehetasunak aztertzen ditu.
- **-Astean behin:** era askotako saio klinikoak (bibliografikoak, kasu klinikoak, diziplina anitzekoak, protokoloak berrikusi eta eguneratzea).
 - Programazio kirurgikoko saioa. Ostegunero aztertuko dira datorren asteko kasu kirurgikoak. Anestesia pediatrikoarekin eta erizaintza kirurgikoarekin komentatuko dira kirurgia aurreko jarduerak eta material-beharrak kasu konplexuenetan.
 - Nefrourologia-saioa
- **-Hileko gutxieneko maiztasuna:**
 - Tumore Pediatrikoen Batzordea (Zentro anitzeko Batzordea, Donostia Ospitaleko eta Valdecillako Marque zentroekin batera)
 - Ospitaleko saio orokorra.
 - Arnasbideko patologia-saioa.
 - Belofaringea-Masailezurreko eta aurpegiko trantsizio-saioa.
 - Digestio-patologiaren saioa.
 - Morbi-Hilkortasun saioa.
 - Arazo Baskularren Batzordea



Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

Zerbitzuak antolakuntza- eta funtzionamendu-arau orokorrak ditu. Horien arabera, lana eta gainerako jarduerak atalka eta lantaldeka banatzen dira. Honako funtzio hauek antolatzen dira: asistentzia, irakaskuntza, ikerketa eta administrazio-funtzioak.

Irakaskuntza-funtzioak, batez ere, egoiliarren tutoreak eta zerbitzuburuak egiten dituzte.

Errotazioak plan baten arabera banatzen dira. Horrez gain, egun batzuetan aldaketa zehatzak egin daitezke, egoiliarrek beste era batean antolatu behar baitira. Hauxe da errotazioen plana:

1. urtea:
<ul style="list-style-type: none">1. Seihilekoa: Helduen kirurgia orokorra.
<ul style="list-style-type: none">2. seihilekoa: Pediatriako Larrialdiak (2 hilabete) eta Kirurgia Pediatrikoa (Eskolaurreko unitatea)
2. urtea:
<ul style="list-style-type: none">1. seihilekoa: Jaioberrien eta bularreko haurren kirurgia pediatrikoa (3-4 hilabete).
<ul style="list-style-type: none">2. seihilekoa: Jaioberrien Zainketa Intentsiboak (hilabete 1), Pediatriako Zainketa Intentsiboak (hilabete 1), Kirurgia torazikoa (3 hilabete). Urologia Pediatrikoa (2 hilabete)
3. urtea:
<ul style="list-style-type: none">1. seihilekoa: Jaioberrien eta bularreko haurren kirurgia pediatrikoa (Kolon-ondesteko Unitatetik igarotzea barne).
<ul style="list-style-type: none">2. seihilekoa: Eskolaurreko kirurgia pediatrikoa (Fisuratuen Unitatetik eta Velofaringeko Funtziotik igarotzea barne).
4. urtea:



<ul style="list-style-type: none">1. seihilekoa: Urologia Pediatrikoa(6 hilabete).
<ul style="list-style-type: none">2. seihilekoa: Urologia Pediatrikoa (2 hilabete). Kirurgia Hepatikoa eta Transplantea (Helduen Kirurgia Orokorra). Aukerako kanpo-errotazioak.
5. urtea:
<ul style="list-style-type: none">1. seihilekoa: kanpoko errotazioak. Aukerakoak
<ul style="list-style-type: none">2. seihilekoa: Kirurgia Pediatrikoa (egoiliarren aukeran)

Horrela, espezialitatearen programa nazionalak ezartzen dituen nahitaezko txandakatzeak betetzen dira. Izan ere, Urologia Pediatrikoa, Eskolaurreko Kirurgia eta Jaioberrien Kirurgia eta Bularreko Kirurgia arloetatik igarotzeak 9-12 hilabeteko epea bete behar du, eta, aldi horietan, egoiliarra bi alditan hautsiko da, bata espezialitatearen hasieran, eta bestea, berriz, ezagutza-maila aurreratuagoa duenean, konplexutasun handiagoko esku-hartzeak egiteko.

Gure mediku egoiliarrek kanpoko errotazio-aldi bat egin beharko dute, espezialitatearen programak aurreikusten duen bezala, ospitaleak prestakuntza nahikorik eman ez dezakeen arlo espezifikoen ezagutzan sakontzeko, kasuan kasuko mediku egoiliarren lehentasunen eta zerbitzuak berak dituen dedikazio bereziko arloen arabera. Errotazio hori egoiliarrek aukeratuko du, eta zerbitziburuaren eta tutorearen onspena beharko du, baita Irakaskuntza-batzordearena ere.

Beste egoiliar batzuei zuzendutako prestakuntza-eskaintza

Bertako egoiliarrez gain, euren prestakuntza zabaltzeko interesa duten beste espezialitate batzuetako errotatzaileak onartzeko aukera dago, baita beste zentro batzuetako Kirurgia Pediatrikoko egoiliarrek ere, gurean erreferentziazkoak diren zerbitzuren bat eskaintzen ez duten zentroetatik etorriak, hain zuzen ere.



Ikerkuntza

Ospitaleak [BioCruces](#) ikerkuntza-zentroaren ikerketa-laguntza dauka.

Ikerketa-proiektuak zerbitzuko medikuek zuzentzen dituzte eta Egoiliarrek parte hartu dute, edo gaur egun parte hartzen dute honako proiektu hauetan:

“Utilidad de la calprotectina como marcador inflamatorio en el diagnóstico diferencial de la apendicitis aguda y otros dolores abdominales agudos”

“Programa experimental de preservación de fertilidad para niños prepúberes con cáncer y síndromes genéticos”

“Uso de la Realidad Virtual como medida de disminución de la ansiedad preoperatoria en pacientes pediátricos”

“Plataforma multisistémica para el diseño, desarrollo y validación de biomateriales personalizados para la reparación tisular (Bioplat)”

“Investigación en tecnologías de soporte para bioimpresión 4D intraoperatoria de injertos de precisión personalizados”

“Validación prospectiva del score TWIST para el diagnóstico de torsión testicular en niños”.

Egoiliarra ikerketa-lanetan parte hartzen hasten da arian-arian; eta egoiliar gisa bi urte egin eta gero, doktore-tesia egiten has daiteke. Urteko Memoria osatuan eskuragarri dago jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatza:

[MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketen motorra da; hau da, ebaluazioaren bidez, indarrak eta ahuleziak hauteman, eta hobekuntza-planak ezartzen dira. **“Prestakuntzaren ebaluazioa”** deitutako ebaluazio-mota horretarako, gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak. Segidan aipatuko diren metodo batzuei esker, informazio zehatza lor dezakegu iturri askotatik eta hainbat ikuspegitatik (gainbegiraleen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio hori erabilia, **Urteko Ebaluazioaren Batzordeak**, kide guztiak ados jarrita, txosten bat egiten du. Txosten horretan jasotzen ditu egoiliarren indarguneak eta, hala dagokionean, hobetzeko arloak. **“Egoiliarren Urteko Espedientea”** osatzen dute gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta derrigorrean egin beharreko ikastaroen ziurtagiriek. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz eta egoiliarri Urteko Espedientea emateaz.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzuko barne-mediku egoiliarrek lortu beharreko gaitasunak bat datoz Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu dituen XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-arloekin. Hona hemen arloak:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientearen zainketa eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak/ medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun Sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren Sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitateari dagozkion asistentziako, irakaskuntzako eta ikerketako gaitasunak bildu dira hemen:

[Kirurgia Pediatrikoaren espezialitateko programa ofiziala](#)

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra¹.



Irakaskuntza Batzordeak ([Iraskuntzako Batzordea](#)) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak zuzentzen dute ebaluazio-sistema. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen ari den **“Prestakuntza gaitasunetan oinarrituta”** izeneko proiektuaren barnean dago. Honako ebaluazio-metodo (**ebaluazio-metodoak**) hauek erabiltzen dira:

- a. Errotazio bakoitzeko gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen eredu)
- b. Aldian behingo elkarrizketak tutorearekin (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da). Honako bi alderdi hauek biltzen ditu: lortutako gaitasunen gaineko hausnarketa, batetik, eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin lotutako beste jardueren kuantifikazioa, bestetik.
- e. Gaitasunetan oinarritutako tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa, jasotako prestakuntzaren gainekoa.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei.
2. Bi urtean behin, otsail eta martxo artean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hori duela 20 urte egiten hasi zen.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES



Kirurgia Pediatrikoa ©